




ZALDIBIAKO
UDALA

IRUDIAREN GIDA LIBURUA



ZALDIBIAKO UDALA

- Zaldibiako Udalaren irudi berria duzu honako hau. Gida liburu honetan irudiaren eraikuntza ulertuko dugu eta honekin batera bere erabilera egokia ikusiko dugu. Irudiak bere nortasuna uneoro gorde dezan eta ez dadin bere izaera distortsionatu. Gida honetako arauak zehatz-mehatz jarraitu beharko dira.



**ZALDIBIAKO
UDALA**

- Zaldibiako Udalaren irudia berritu da, sinplifikazioa bilatuz eta “Zaldibia” hitzaren azalpen zuzena eginez. Orain arteko armariak ematen zuen azalpen okerra zuzentzen du. Zaldibia Zaldi-ibia. Beraz, zaldia eta ibia-”bidea” ikus ditzakegu. Armariaren forma mantentzea erabaki da, sinplifikatuz. Forma honek historikoki gure gizartean izan duen garrantziagatik, armaria segurtasunaren eta komunitatearen sinboloa baita. Kolore bakarra erabili da: urdina. Lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza adierazten ditu, elegantea eta serioa da. Gainera, Zaldibiko urari erreferentzia egiten dio. Tipografia kondentsatua erabili da serif-a puntu batzuetan soilik agertzen delarik, letra motari izaera propioa emanez.



**ZALDIBIAKO
UDALA**

- Zenbait kasutan irudia horizontalean erabili beharko da, euskarriaren ezaugarriak hala eskatuta. Horretarako sortu da bertsio horizontala.



PANTONE: 7693C
CMYK: 96/68/30/17
RGB: 20/74/116
WEB: #144A74



Beltza

ZALDIBIAKO UDALA



Irudiko tipografia Zaldibiako irudirako propio sortua da, testu gehigarriako ondorengo tipografia erabiliko da.

Rotis Serif 55 / Rotis Serif bold 65 / *Rotis Serif Std 56 Italic*

Serif-a duena testu luzeetarako erabiliko da, serif-ak hizkiak batzen ditu eta irakurketa luzeetan lagundu egiten du.

Rotis Sans Serif Std - 55 / **Rotis Sans Serif Std - 55 extra bold**


Serif-ik gabeko bertsioa erabiliko da tituluetaarako eta testu motzetaarako



- Irudia modulu bidez neurtu daiteke, beraien arteko proportzionaltasuna bilatu delarik. Horrela "Zaldibia" eta "Udala" hitzen arteko tartetik modulu unitate bat sortzen da, hortik abiatuta atera dira tamaina eta proportzio guztiak.



- Kolore bakarra erabiltzekotan beltza edo kolore korporatiboa (urdina) erabili beharko da. Irudia negatiboan erabiltzekotan txuria izango da beti, beltza edo kolore korporatiboaren (urdina) gainean.



- Segurtasun tartea gordetzea beharrezkoa, irudia eta testuaren arteko tartea perimetroan ere errespetatuz. Inolako objektuk, irudik edo testuk ez du segurtasun tarte hau gainditu behar. Irudiak bere izaera mantentzeko beharrezkoa du tarte huts hori.



- Irudi horizontala ezingo da 15 mm baina txikiagoa izan, zabalera 15 mm baina txikiagoa duen irudia ezingo da irakurri. Irudi bertikalari dagokionez ezingo da zabalera 10 mm baina txikiagoa duen bertsio bat inprimatu.

A large, stylized silhouette of a horse in a dark blue color, positioned on the right side of the page. The horse is facing left and appears to be in a dynamic, possibly galloping or rearing, pose. The background is a lighter blue with abstract, curved shapes.

Gattikenek sortua 2021-eko urtarrilean.
Irudia erabiltzeko edozein zalantza duzularik jarri gurekin harremanetan

gattiken@gattiken.eus | 943 53 44 62 | 688 69 65 26